

Antolatzailea



alkartasuna
fundazioa

www.alkartasunafundazioa.eus

info@alkartasunafundazioa.eus



@alkartasun

Laguntzaileak



Giza eskubideak, gerra eta komunikabideak
Kolonbiaren adibidea, munduaren errealitatea

LA PAZ INSURRECTA **DOKUMENTALAREN PROIEKZIOA** **ETA MAHAI-INGURUA**



alkartasuna
fundazioa

2017ko irailaren 27a | Asteazkena
18:30 | Oñatiko Kultur Etxean (Santa Marina plaza, 1)



GIZA ESKUBIDEAK, GERRA ETA KOMUNIKABIDEAK
KOLONBIAREN ADIBIDEA, MUNDUAREN ERREALITATEA

LA PAZ INSURRECTA DOKUMENTALAREN PROIEKZIOA ETA MAHAI-INGURUA



PARTE-HARTZAILEAK

UNAI ARANZADI

Kazetaria eta dokumentalaren egilea

IRIA EPALZA

Alkartasuna Fundazioaren kidea

JOXERRAMON BENGOETXEA

EHUGuneko Koordinatzailea eta UPV/EHUko Zuzenbidearen Soziologiaren
Nazioarteko Masterraren zuzendaria

CAMILO UMAÑA

UPV/EHU - U. Ottawa. La Habanan bake elkarrizketetan izandako
parte-hartzailea



Zerk hunkitzen gaitu emozionalki edo mobilizatzen gaitu politikoki? Zer mekanismo baliatzen dituzte boterea dutenek, botere hori izateko?

Kolonbia, Libia, Estatu espainiarra edo beste gatazka asko. BBC, Al Jazeera, CNN, Canal Plus edo TeleSur haien bozgorailu gisa. Horietan guztietan esperientzia izanik, Unai Aranzadi erreportari eta dokumentalistak gure iritzi politikoa eratzen duen informazio-mapa hori zehatz analizatzen du Kolonbiako gerra, Giza Eskubideen urraketa eta bake-prozesuaren adibidea oinarritzat hartuz.



Unai Aranzadi (Getxo 1975) "Independent Docs" produkzio-etxe eta albiste-agentziako zuzendaria da; gatazka armatuei, azpigarapenari, desperekotasunari eta giza eskubideei buruzko dokumentaletan espezializatuta dago enpresa hori. Dozena bat lan baino gehiago idatzi eta zuzendu ditu, eta Amnesty International eta Mundubat erakundeekin lankidetzan jardun du.

Gatazkaren kausei buruzko "Colombia Invisible" (2013) dokumentala eta "La Paz Insurrecta" (2017) dokumentala egin ditu, ia hirurogei urte iraun duen gerra irregular baten dokumentu ofizialetan agertzen ez denari buruz nekazari, gerrillari eta bitartekariak emandako lekukotzarekin.

- Film labor onenaren saria jaso zuen Bartzelonako (2014) eta Boliviako Sucreko (2015) Giza Eskubideen Zinemaldietan, indarkeriari uko egiteari eta Kongon Nazio Batuen gizarteratze-programa batean sartzeari buruzko "Jambo Amani ¿Tenemos paz?" filmarekin.
- Bilboko "Film Sozialak" Zinema Ikusezinaren Nazioarteko VIII. Jaialdiko Euskarazko Obraren Saria, israeldarren okupazioak Palestinan sortzen dituen sufrimenduak kontatzen dituen "Nevertheless, Al Quds" filmarekin.

Era berean, "Islamic Somalia", "Blackout: US Occupation in Iraq" eta "Nosotras Centroamericanas" filmen egilea da.

"Gerratik eta bidegabekieratik sortzen diren istorioak serioegiak dira produktu errentagarriak edo soilik entretenimendua izateko. Benetan garrantzitsuak diren dokumentalak, istorio on bat emateaz gain mezu on bat ere ematen dutenak dira." Unai Aranzadi